



## Eskola porrota

M A H A I - I N G U R U A

- Meltxor Artetxe
- Itziar Pagoaga
- Bego Zuza

### I R I T Z I A K

- Jean Mixel Etxegarai
- Daniel Pennac
- Juan Portela

# Akademizismotik ihes egiteko garaia

**O**hituta gaude eskola porrotaren zenbaki gordinak ikustera. Finlandian, Europako emaitza onenekin, %8 pasatxokoa da porrota eta EAEn aldiz, %14tik gorakoa, 2006ko datuen arabera. Baina askoz sakonagoa den errealitatearen azken distira baino ez dira zifrak, ala notetan isla daiteke benetako porrota? Islatzen al da hezkuntza sistemaren amaraunean galdu den ikaslearen ezintasuna, irakasleak duen egitekoa, gurasoen inplikazio maila? Zenbakietan oinarritutako ebaluazioak ondo eman al dezake haurraren gaitasunen berri? Irakasle eta pedagogo bi eta guraso bat elkartu ditugu mahaiaren bueltan, benetako porrotaz hitz egiteko. Eskolak egoista, eroso eta akademikoa izateari utzi behar diola esan digute, eta protagonismo eta arreta guztia hezkuntzaren helburu nagusiari eskaini behar zaiola: ikaslea.

■ Mikel Garcia  
Mahai-inguruko argazkiak:  
Karlos Corbella  
Irudiak: Zuriñe Intxausti

**Eskola porrotaren tamaina adierazteko, ehunekotan ematen dizkiguten estatistika ezkorak ezagunak ditugu. Zenbakietara mugatu daiteke ordea eskola porrota? Zer da, nola definitu?**

**MELTXOR ARTETXE.** Eskola porrotaren kontzeptuak indarra hartu zuen ikaskuntza prozesua 16 urtera arte derrigortu zen unean. Hortik abiatuta, kontzeptua jorratu izan dugunetan definizio asko agertu zaizkigu, ikaslearen ikuspegitik egitea

edo eskolaren funtzionamenduaren ikuspegitik begiratzea desberdina baita. Nik bi definizio ekarriko nitzuke hona: batetik, kuantitatiboa; estatistiketan, porroterako muga jartzeko orduan kontuan hartzen da 16 urtera arteko derrigorrezko eskolaldi horretan hezkuntzak jarritako espektatibak, emaitzak eta tituluak nork lortu dituen eta nork ez. Bestetik, kualitatiboa; hezkuntzan bete-betean sartuta gaudenontzat konplexuagoa, serioagoa eta inportanteagoa, diakronikoa, ez dira kopuru eta estatistika batzuk, baizik eta egoera pertsonal



Ezker-eskuin: Bego Zuza, Meltxor Artetxe eta Itziar Pagoaga.

askotan mingarriak, bere baitan faktore desberdinak hartzen dituztenak, porrot sozial edo orokorrago baten zati...

**ITZIAR PAGOAGA.** Ados nago, egia da tituluaren arabera neurtzen dela, baina ikusi beharko genuke zein zonaldean eta nola ematen den porrot hori, egoera ekonomikoak eta kulturalak eragin handia baitu. Gure ikuspegia baldin bada hezkuntza altxorra dela gizakiontzat, puntu bat izango dugu, produktibismotik jotzen badugu beste bat, eta errepro-

dukzio sozialetik beste bat. Nik, dudarik gabe, giza altxorra kontsideratzen dut kultura, eta horren barruan hezkuntza. Hortik abiatuta, helburu desberdinak daude eta beraz porrota ez litzateke muga kuantitatiboetara mugatu behar. Egia da hor dagoela kopuru bat, beti existitu dena, ez dena sartzen eskolak eskaintzen dion horretan, eta eskolaren ezina bezala planteatu behar da. Etorkinekin bezala: lau etorkin iritsi dira eta gizartea hankaz gora jarri dute? Gizartea izango da ahul dagoena! Eta eskolan 14-16 urteko lau gaztetxo ezin ditugu gobernatu? Eskola

izango da ahula, ezta? Zein eredu sozial ematen ari gara? Interneten arakatuta, ikasleekin lotzen da porrota, abundantzian hazitako ikasleekin, frustratzen ez dakiten ikasleekin, baina nire esperientziak ez du lotzen porrota abundantziarekin, beste ahulezia batzuekin baino. Datuek diote Finlandiak guk baino dezente porrot gutxiago duela eta Portugalek guk baino gehiago, zerbait esan nahiko du, ezta? *La letra con sangre entra* garaiko askoren kritika beti da familiarentzat, familia desegituratuez erraz hitz egingen dugu irakasleok... Eta eskola? Nola dago eskola? Zer eskaintzen die gure gazteei?

**Eta zuk, Bego, guraso bezala nola bizi duzu eskola porrota?**

**BEGO ZUZA.** Ama bezala, porrotaren ardura interesatzen zait, arduraren banaketa. Alegia, familia nola integratzen den eskolan, gurasoak nola integratzen diren, eta bide hori elkarrekin nola egiten duten. Nik oso esperientzia interesgarria izan dut, guraso bezala eskola irekia topatu dudalako beti eta benetako zati izaten utzi dit. Eskolak guraso bezala hezi egin nau eta hori ere eskolaren funtzioa dela uste dut. Eskola eta familiaren arteko konplizitatea lortzen denean, ikaslearen ahulguneak eta indarguneak ezagutzeko oso lagungarria da. Nire ustez, bidea batera egiteak, batera lan egiteak laguntzen du porrota saihesten, eta horregatik zintzo jokatu behar du eskolak gurasoekin. Porrota ez da ikaslearena, 2-3 urteko haur bat eskolan uzten baitugu, eta

## M a h a i k i d e a k

### ■ MELTXOR ARTETXE



#### Orereta Ikastolako zuzendaria

Orion (Gipuzkoa) jaioa, 1953an. Irakasle titulua du, Euskal Filologiaren espezialitatean, Euskal Ikasketen Lizentzia atera du Paueko Unibertsitatean eta Psikopedagogian lizentziatua da. Orereta Ikastolako zuzendari izan aurretik, Seaskan hiru urte egin zituen pedagogia arduradun, Baionako Bernat Etxepare Lizeoan zuzendari aritu zen eta Euskal Herriko Ikastolen Konfederazio-ko prestakuntza arduradun izan da sei urtez.

### ■ ITZIAR PAGOAGA



#### Langile Ikastolako Bigarren Hezkuntzako Institutuko irakaslea

Mutrikun (Gipuzkoa) jaio zen, 1951n, eta Hernanin bizi da. Irakasle eta Psikologia ikasketak egin ditu. Hernaniko Langile BHIko irakaslea da eta Herriko Berdintasun Kontseiluko partaidea.

bide horretan asmatu behar dugu hasieratik jada noiz ari garen oker jokatzeko. Lorpena ez baita soilik DBHko titulua lortzea; haur hezkuntza, lehen hezkuntza, DBH eta unibertsitateko porrotak ere badaude. Sistema eskolarraz mintzatzen gara, baina teoria orokorretatik jaitsi egin behar gara eta bakoitzak bere taldean, bere eskolan zer egin dezakeen ikusi behar du, zertan lagundu dezakeen ikasle horiek aurrera atera daitezen. Baina ez nota onak ateratzeko, presio sozial handi hori gaintik kendu behar zaie, lehiakortasun ikaragarri hori kendu, eta arduraz eta solidaritateaz hitz egin behar dugu ikasleekin. Eskolak baliabideak eman behar dizkio ikasleari, harro eta motibatuta bizi dadin, etorkizunean kamioilaria izan edo enpresario.

## ■ BEGO ZUZA



### Gurasoa

Hernanin (Gipuzkoa) jaio zen, 1960an. Administrazio ikasketak egin ditu eta ARGIA-ko salmenta burua da. Bi seme-ren ama, Langile Ikastolako 4. DBHko gela burua izan da aurten arte. Gela buru lana gurasoek betetzen dute ikastola honetan, irakasleekin batera, ohiko guraso elkartearen ordean.

**M. ARTETXE.** Kontua da ezin dugula nahi guren eskola diseinua egin. Produktio sistemak gidatzen dituztenek erabakitzen dituzte gure helburu akademiko nagusiak. Titulazio sistema ez dugu eskolatik diseinatzen, administrazioak egiten du. Eta Begok esan duenari helduz, egia da eskolak ez duela soilik titulazio bat eta maila bat eskaini behar. Eskaini beharko luke ikasle horren garapena era integralean: sozializazio bide bat (ez eskolak bakarrik, baina baita eskolak ere), ongizate maila bat, eta hori guztia, estatistikak eskuan eta eskola porrota ulertzen den moduan, ez da existitzen. Batzuetan badirudi kamioilari edo ile-apaintzaile izan nahi dutenak, halako maila bat ematen ez dutelako, ez direla hezigarriak, eta absurdu horretan erortzen gara oraindik ere. Gainera, emaitza akademikoei garrantzi gehiegi ematea izugarritzko astakeria da eta min handia egiten du; oso arriskutsua da pertsonaren balioak neurtzea nota onak ateratzen al dituen epaituz, eta ez dator bat bizitza errealekin. Irizpide horiekin neurtzen badugu dena, benetako gizarterako prestatu ordean disozio handiak sortuko ditugu.

**B. ZUZA.** Hain zuzen, pena ematen dit ikaslearen helburua denean eskolara joatea “gainditzera”, hainbeste lan egin denean beste mota bateko eskola egiteko (eta egiten da hainbat ikastetxetan). Ni irakaslearekin seme-alabek hitz egitera joaten naiz, ez dut nahi notez hitz egin. Azkenean, eduki asko ahaztu egiten ditugu urteak pasa ahala, baina ikasitako baloreak (errespetua, lankidetzeta, elkarlana...) nirekin eramango ditut eta aurrerago, benetan gustatzen zaidana ikasi ikasiko dut. Heldutasunean, oraindik ere bukatu gabe gaude, zenbat ikastaro egiten ditugu? Formakuntza ez da inoiz bukatzen, tresnak eta baliabideak jasotzea da garrantzitsua.

**I. PAGOAGA.** Eskola desmitifikatu egin behar dugula uste dut. Meltxor, diozunean eskolako edukiak administrazioetik definituta datozela, gizarte batek gutxiengo batzuk definituta izan behar ditu, baina oso erabaki orokorrak dira, badugu irakasleok curriculum moldatzeko

aukera eta ez oso aspergarri eta errepikakor egitekoa, testu-liburuen mugak gaindituz. Gure esku dago bide sortzaileago bat hartzea. DBHko edukiak ez dira hainbesterako, ikasi daitezke ordu gutxiagotan, arazoa da jakin-min hori nola ez zikiratu, nola ez deuseztatu eskolan, askotan hori egiten baitugu. Irakaslearen sekretuak hor egon beharko luke. Zortzi gaitasunen baitan baloratzen dira ikasleak, arazoa da nola egiten den hori, administrazioak ematen digun baliabidea, ebaluazio diagnostikoa, eskasa baita, azterketetan baino ez da oinarritzen. Desmitifikatu behar dira, halaber, DBHn sortzen diren gatazkak. Ez dira hainbeste eta hainbesterako, irakasle ekipo sendoeekin, gazteei segurtasunez mugak jarriz... bideratzen dira gatazkak. Hedabideek izugarritzko kaltea egin dute, *bullying* famatua, porrota eta gatazka direla. Porrota beti existitu da, eta gizartea, kultura eta ekonomia maila igotzen diren neurrian aldatzen da. Ez da soilik eskolaren funtzioa izango, ezta?

**Tramu zailena DBH da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. Zer gertatzen da adin tarte horretan?**

**M. ARTETXE.** Porrota neurtzeko lehenengo muga garrantzitsuenak (kuantitatibo eta estatistikoa) DBH bukatzen den adinean jartzen da. Zergatik hor? Nerabezaroaren problematika mitifikatu egin dugu, zerbait izugarria izango balitz bezala. Duela hirurogei urte, 14 urterekin Europan %80a ikasleak utzi eta lan mundura joaten zen, hemen 12 urterekin. Gaur egun, 17 urterekin Europan %80ak oraindik ikasketekin jarraitzen du eta salto handia da hori. Nerabezaroa, garapen psiko-ebolubotik begiratura, den bezalakoa da, eta garapen hori txartzat hartzen dugu, adin okerragoa balitz bezala, tontokeriaren adina, eta ez dugu hala egin behar. Irakasleok nerabea ikusten dugunean arazo baten aurrean, nola ez dugun pertsona osotzat hartzen, helduaren proiektutzat baino, arazoa ere ez dugu benetako arazotzat hartzen, denborarekin pasatuko dela uste dugu, eta bitarte horretan izugarri sufritu dezake ikasleak.

**I. PAGOAGA.** DBHn jauzia ematen da gauza zehatzetatik abstrakziora. Ikasle batzuk erortzen

**“E**gozentrismoa iristen da nerabezaroan eta errebelatu egingo da; horrela maitatu behar ditugu, txarra denik pentsatu gabe. Egozentrismo eta errebeldia puntu hori ia ez duten ikasleak iruditzen zaizkigu idealak, arazorik ez digutelako sortzen, baina ez da erreal!”

**M. ARTETXE**

dira, egia da, baina beste bide bat hartzeko aukera dute, hori ere landu behar da.

**B. ZUZA.** Hori da, ikasleak intelektualki ez badu ematen, baina naturarekin lotura handia badu eta landareak eta zuhaitzak ondo ezagutzen baditu, estatistiketan porrot bezala agertuko da, baina niretzat ez da porrota. Porrota da gazteak ez dakienean non dagoen, zertan ari den, norabiderik gabe, eskolaren, lagunen edo familiaren babesik gabe, bakarrik... 4. DBH ez duzu gainditu, baina lagunak maite zaituzte eta kiroletan adibidez ondo moldatzen zara, nola izango da hori porrota?

**I. PAGOAGA.** Eta hala ere, zenbakietara bakarrik begiratura ere, lehen baino askoz jende gehiago joaten da batxilergora eta unibertsitatera. Hezkuntza luzatzea ondo dago, baina bitartekoak jarrita, eta DBHn bitartekoak falta direla egia da. Helburua zer da, ikasleak kalean egon ez daitezela eta ikasgeletan sartu? Ez, helburu garbiak jarri behar dira, metodologia anitzekin bide anitzak bilatu, pertsona bezala formatu, eta ez denak testu-liburu berdinekin aritu, tope desberdinak ditugulako denek.



**M. ARTETXE.** Adin horretan sinetsi beharko genuke. Kognitiboki jauzi handia egiten den bezala, egozentrismoa iristen da nerabezaroan eta errebelatu egingo da (eta errebelatu behar du gainera); horrela maitatu behar ditugu, txarra denik pentsatu gabe. Egozentrismo eta errebeldia puntu hori ia ez duten ikasleak iruditzen zaizkigu idealak, arazorik ez digutelako sortzen, baina ez da erreal! Ezin da ikuspegi egoista izan, errebeldie horiek kudeatuko dutelako gure erretiroa ere eta komeni zaigu haiengan sinestea. Espektatiba baikorrak jartzen eta diren bezalakoak onartzen, hor dugu irakasleok lana.

**Irakasleen lanaz ari zarela, motibazioak funtsezkoa dirudi. Zein da ikasleen ohiko jarrera geletan? Eta nola lortzen du irakasleak ikasleak motibatzea?**

**I. PAGOAGA.** Motibazio hitza gehiegi erabiltzen dela uste dut, lehenbizi landarea moztu eta gero esan ez dela hazten. Berez ikasleak interes eta jakin-min handia du, oso handia, baina agian ez guk eman nahi ditugun gaietan, agian beste nonbaitetik jo behar dugu. Urte askotako esperientzia dut gartzetxoekin eta motibatu gabeko ikasle oso gutxi ezagutu ditut, bai ordea ikasgai batekin motibatu gabe daudenak; agian pentsatu beharko litzateke beste era batera eman daitekeen ikasgai hori. Guk jakin beharko genuke ondo zer den motibazioa, Meltxorrek zioen moduan ikaslearen garapena non dagoen jakitea, euren entzutea, eta gurea ikustea. Hau da, etxean bezala, eskolan ere giro ona badago, atseginez sartuko gara, muturka bagaude, ahalegina egingo dugu aldentzeko. Giroa ezinbestekoa da sorkuntza eta jakin-mina martxan jartzeko, eta gizabanakoak zer behar duen, berak ere esan behar du. Klasean denbora

“**E**zagunek esan izan didate eskolak deitu dietenean izan dela soilik zerbait txarra esateko. Iruditzen zait eskolak egin behar duela familiaren integrazioa eta eskolari kostatzen zaio, gurasook etsaitzat hartzen gaituztelako, uste dute goazela kexatzera edo nota altxatzeko eskatzera”

## B. ZUZA

guztitan “txapa ematen” egon beharrean taldeka jarri, euren artean laguntzea eta lan egitea saritu, ikusi nola egiten duten lan... eta sortuko da motibazioa. Taldean egiten ditugun lan guztietan, ikasleek iniziatibez gainezka bukatzen dugu. Hots, eskolak aldatu egin behar du, ezin du hain transmisioa izan, ezin du eredu bakartzat testu-liburua hartu, ezin du hain kalifikatzaile ona izan... Ez dakit nola ausartzen diren irakasleak 3,95 ipintzen, hain da erlatiboa nota hori, horren objektibotasuna hain dago zalantzan seriotasunez aztertzen duten guztien eskuetan. Gainera, azterketetan denbora asko galtzen dugu, ikasteari dedikatu beharrean.

**Beraz arazoa ez da ikaslea, irakaslea baizik...**

**M. ARTETXE.** Hasteko, irakaskuntza prozesuan joera daukagu ikaslea eta bere ingurua epaitzeko; “zergatik doa gaizki? Zergatik ez du ikasten?”. Azkarra, motela, langilea, alferra, lau parametro horiekin epaitzen ditugu gainera, hain desberdinak eta anitzak diren ikasleak. Astakeria horretatik harago begiratzen dugunean ere, ikaslearen inguru-

ra hasten gara begiratzen, konturatu ere egin gabe askotan eskola, antolaketa sistema bezala, eragiten ari dela ikasle horren heziketan. Irakasleak berak bolada onak eta txarrak, ilusioak, espektatibak, lan egiteko moduak... dituela. Baina horiek ez ditugu kuestionatzen, ikaslearen errendimendua besterik ez. Gutxienez kontuan hartu beharko genuke zein diferentziak diren (interesetan, bizi emozionala adierazterakoan...), duten ingurua, familia giroa, irakaslearenganako konfiantza, eskolaren antolaketa eta metodologia... Hainbat faktore daude motibazioan eragingo dutenak, baina guri iruditzen zaigu nahiz eta bere gustuko gaiak ez ikasi eta gogoz kontra etorri eskolara, motibatuta egon beharko lukeela.

**B. ZUZA.** Irakasleak egiten den balorazioa ere oso garrantzitsua da. Ezzagunek esan izan didate eskolatik deitu dietenean izan dela soilik zerbait txarra esateko. Iruditzen zait eskolak egin behar duela familiaren integrazioa eta eskolari kostatzen zaio, gurasook etsaitzat hartzen gaituztelako, uste dute goazela kexatzera edo nota altxatzeko eskatzera. Ni inoiz ez naiz horretara joango...

**Guraso inplikaturik zara zu, baina Itziarrek eta Meltxorrek, zein esperientzia izan duzue gurasoekin izandako harremanean?**

**I. PAGOAGA.** Gure ikastolan, gurasoekin elkarlana ezinbestekoa izan da hezkuntzarentzako eta ehuneko handi batean autoritate moralarekin sentitu gara egiten dugun lana egiteko. Batez ere, arazoak dituzten ikasleekin oso-oso garrantzitsua da. Dударik gabe, diziiplina arazorik apenas izan ez badugu izan da gurasoekin harreman handia eta ona izan dugulako.

**M. ARTETXE.** Nik esperientzia oso anitza daukat. Seaskan lau urtez aritu nintzen eta askoz ere inplikazio handiagoa ikusi nuen, baita gurasoen alde-rik ere, zailtasunak dituztenean indarrak biltzen dituzulako. Irakasleak abalatuago daude eta elkarlan handiagoa dago gurasoekin. Hegoaldeko eskoletan, oso egoera anitza bizi dugu. Esaten da gurasoak bere hezitzaile rola albo batera utzi






duela, dimititu egin duela, baina ez dut uste orokorrean horrela denik. Egia da badela hainbat guraso hori egiten duena, geroz eta gazteago utzi baitaiteke haurra eskolan, geroz eta ordu gehiagoz, eskolaz kanpoko osagarriekin, baina bestelakoak ere ikusten ditugu: guraso hezitzaileagoak, hezkuntza bereganatzeko Internet erabiltzen dutenak... Oraindik lortu ez duguna da (eta pozten naiz Langile Ikastolan lortu baduzue), gurea ikastola handia delako agian, nahi genukeen bezain inplikazio estua gurasoen aldetik. Begok esan duena egia da: arazoak dituenaren gurasoei deituko diegu eta ondo doanarenei ez. Hala ere, dene-tik dago, bai ikasle eta bai irakasleen artean ere. Irakasleok jakin behar duguna da gurasoak aliatuak direla, ez etsaiak.

**B. ZUZA.** Azken finean, irakasle asko guraso dira eta horregatik erraza dute gure lekuan jartzea; euren seme-alaben eskolara doazenean ez dira

joango irakaslea beldurtzeko xedez; ni berdin, lagundu nahi dudala ikusi behar dute. Gainera, guraso izateaz gain beste zerbait ere banaiz eta ikuspegi berri bat eman dezaket, arazoren bat desblokeatzen lagundu dezaket. Elkarrekin ez bagoaz, mezu desberdinak helarazi diezazkiokegu ikasleari.

**I. PAGOAGA.** Elkarbizitzaren gai honek administrazioa kritikatzeko parada ematen dit. Duela hiru urte izugarrizko bonbo, liburuxka eta istoriorekin aurkeztu zuten elkarbizitza proiektua, hiru urteko plana (komunitate eskolar guztia kontuan hartuko lukeen behatokia sortzea eta abar), guztien artean eskoletan diziiplina positiboa bultzatzeko. Urtebetera esan zuten plana amaitu zela, eta urte berean hasi zen IKT (Informazioaren eta Teknologiaren Komunikazioak) delakoaren aldeko ekimena, oraindik martxan. IKTren erabat alde nago, baina zein ikuspegi du administrazioak? Zergatik onar-

**DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA 4 (EAEko datuak)**

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

**Datuez fidatu behar ez garela defendatu dugun arren, hona sakoneko arazoaren azaleko ondorioa isla dezakeen azterketa horietako bat. EAEn jasotako datuen arabera, 2000-2001eko ia %20tik iazko %10era jaitsi da 4. DBH gainditzen ez duten ikasleen kopurua. Baina gainditu gabeko bat eta hiru ikasgai artean dituzten haurren kopurua %23 izan zen iaz. Aurretik datorren oinarri falta izan daiteke, edo datozen ikasturteetarako oinarri falta.**

tzen da bat eta bestea ez? Oso garrantzi txikia ematen zaio elkarbizitzari, eta hori bitartekoetan ikusten da.

**Eskola porrotaren “erruaz” hitz egiterakoan faktore ugariz aritu zarete. Zeintzuk dira porrotaren arrazoi nagusiak?**

**M. ARTETXE.** Sakoneko zerbait kontsideratuz, eta ez soilik emaitza akademikoei lotutako zerbait, faktoreak oso anitzak dira. Ikaslearen baitan egon daitezke (ezaugarri sozio-ekonomiko eta kulturak, ikastearrekin dituen gorabeherak, ikas-sistema bereganatzen duen ala ez), inguruan (familia eredu, adibidez), edo eskolan bertan (curriculum desegoki eta desmotibanteak, antolaketa zurrin eta hierarkikoak, lagunarte eta eskola giro txarra...). Hiru multzo nagusi horiek elkarri eragiten diote eta horietako edozein multzotan labaintzeak porrotaren hasiera eragin dezake.

**B. ZUZA.** Nik gaineratuko nuke espektatibetan ere egon daitekeela porrotaren jatorria, espektatiba han-

diegiak jartzean. Oso frustrantea iruditzen zaizkit irakasleen ohiko bi esaldi, ebaluaketak egiterakoan: “Oinarri falta du” eta “gehiago egin dezake”. Nire notetan ere beti “gehiago egin dezake” jartzen zuten, baina denek egin dezakegu gehiago eta unea agian ez da gehiago egitekoa. Halaber, oinarri falta ere oso larria iruditzen zait, oinarri falta baldin badago irakasleak atzera egin behar duelako ikasle horrekin, oinarri hori eman, eta ez aurrera jarraitzen utzi.

**Eta atzera egite hori, hau da, bakoitzari dagokion erritmoa jarraitzen uztea, ahalbidetzen al du hezkuntza sistemak?**

**M. ARTETXE.** Hor legoke aterabidea, egotekotan, eta administrazioa bueltatzen gara berriz. Ikasle anitzak dira, ikasteko erritmo, gaitasun eta interesetan, eta ikasleari erantzun behar zaio dagokion lekutik. Eskola inklusiboaren kontzeptua horixe da: bakoitzari bere eskola, baina horretarako baliabide asko behar dira eta eskatzen zaiguna da eskola inklusiboa egitea betiko baliabide zaharrek. Eskola inklusiboaren bultzatzaileek diote, adi-

“**E**z dakit nola ausartzen diren irakasleak 3,95 ipintzen, hain da erlatiboa nota hori, horren objektibotasuna hain dago zalantzan gaia seriotasunez aztertzen duten guztien eskuetan. Gainera, azterketetan denbora asko galtzen dugu, ikasleari dedikatu beharrean”


### I. PAGOAGA

bidez, ikasgela bakoitzean denbora guztian bi irakaslek egon behar dutela, baina hori ez zaigu eman. Zerekin egiten dugu topo hor?

**I. PAGOAGA.** Administrazioarekin, dudarik gabe. Baina baita irakasleekin ere! Espektatibak aipatu ditugu lehen; espektatibak dituzten gurasoen seme-alabek aurrera egiten dute. Arazoa da espektatiba eza, ez bakarrik gurasoengan, baita irakasleengan ere. Irakasleok askotan jokutzen dugu espektatiba kaskarrekin; harengan espektatiba kaskarrak ditudanez, galdera ziztrina egingo diot, eta galdera ona betiko ikasle “onari” egingo diot. Gutxitzen ari naiz lehenengo ikaslea.

Horri helduz, nola eragiten du haurraren autoestimuan eta garapenean eskola porrotak? Dinamika horretan sartuta, etengabeko gurpil zoroa al da ikaslearentzat?

**I. PAGOAGA.** Hamahirugarren urtea da hain justu horrelako ikasleekin lanean ari naizena eta ikusten badute eurengan izugarrizko konfiantza jartzen duzula, bide horretatik ez bada beste batetik egin behar duela eta oso exijentea zarela (hauekin askotan ez baikara oso exijenteak), benetan ez da zaila porrotaren sentazioa gainditzea. Baina lan asko



“**I**rakasleek erabiltzen duten tresna iruditzen zait azterketa, eurak lasaitzeko, eta gainera, ikasgai bat %80ak ez badu gainditu, arazoa ez dago soilik ikasleengan, irakasleak ere izango du zerikusirik, hausnartu beharko du porrot horretaz... Azterketarik gabeko ebaluazioa behar luke”

### **B. ZUZA**

eskatzen du, ez da nahikoa orientatzailea edo ikasketak burua, taldea behar da, laguntza eta orientazioa mailaz maila landuko dituen talde-lana. Eta bide horretan, ikasle horiek arrakastak lortuko dituzte, ahal da-eta. Aurten, 3. DBH maila egitera desesperatuta iritsi zen ikasle batek DBHko titulazioa lortu du eta gainera, azken festan, 250 lagunengana aurrean poema bat errezitatu zuen. Hori arrakasta handia da niretzat. Horrelako arrakastek aldatzen dute autoestimua.

**M. ARTETXE.** Galderari erantzunez, egia da gorpuzko zoro ezkor hori ematen dela eta eskola porrota porrot pertsonal edo sozial bilakatu daitekeela, konponbiderik jartzen ez badiogu. Dibertsifikazio curricularretan ditugun taldeko ikasleak aztertuta, askotan ikusten dugu aspalditik datorren arazoak dakartzatela, irakurketa-idazketa oztopoekin eta abar. Nire esperientzian oinarrituta, aurten bertan izan ditugu porrot honetan egon diren eta atera ez ditugun hainbat ikasle. Ezin izan dugu arazoa konpondu, irakasle esperientziadunak eta onenak jarrita ere; esaten ari garena esatea erraza da, baina egitea...

**I. PAGOAGA.** Baina Meltxor, ez gara ahalguztidunak eta zailtasunak daude! %2-3 bidean geratzea

“**A**zkarra, motela, langilea, Alferra, lau parametro horiekin epaitzen ditugu hain desberdinak eta anitzak diren ikasleak. Irakasleak berak bolada onak eta txarrak ditu, baina horiek ez ditugu kuestionatzen, ikaslearen errendimendua besterik ez”

### **M. ARTETXE**

edo %20 izatea, hor dago gure lana; %100a ez dago gure esku. Eta gustatu zait nola esan duzun zailtasunak dituztenekin irakasle onenak ipintzen dituzuela, batzuetan “irabazitako eskubideak” bezala hartzen ditugulako “irabazitako obligazioak” direnak; alegia, zuzendaritzakoek, esperientzia gehien dutenek... egin behar dutela lan gaizki doazenekin.

**Amaitzeko, nola egin aurre eskola porrotari?**

**I. PAGOAGA.** Hasteko, jakin-mina ez zikiratuz, askotan eduki ziztrin eta aspergarriekin. Izandako esperientzian oinarrituta, giro ona ezinbestekoa da (eta gainera kutsakorra, motibagarria). Irakasleen prestakuntza ere oso inportantea da, baina egiten den prestakuntza homogeneizatzailea da askotan, adibidez Kalitate famatua, edo zenbait proiektu... Argi eduki behar dugu ikasketa prozesua ez dela Kursaalera joan, lau gauza entzun eta etxera itzultzea, baizik eta jarraitasuneko barne prestakuntza (behar den espezialisten laguntzarekin, EHU barne), behar dena behar dela bertara ekarri. Burokraziarekin amaitu behar da eta metodologiak anitza izan behar du, nahitaez, bestela ezin delako egoera desberdinei aurre egin. Eta aniztasunaz hitz egiten dugunean beti pentsatzen dugu ez dakitenengan,

DANI BLANCO



Irudian, Orereta Ikastolako ikasgela. Meltxor Artetxeren hitzetan, eskola partikularren inguruko eztabaida daukate zintzilik ikastolan: "Gurasoak keXu dira eskola partikular gehiegi hartzen dutelako seme-alabek eta arrazoia ematen diet nik. Listoia denentzako bat eta bera jarri dugunez, heltzen ez denak ez daki nora jo behar duen, eta bitartean denbora galtzen dugu geletan".

baina ez da hala egin behar. Hasteko, ez dago inor ezer ez dakienik, ez eta dena dakienik ere, eta "goitik" daudenek ere asko ikasten dute laguntzen aritzen direnean. Azkenik, azpimarratu nahiko nuke gurasoen parte-hartzea funtsezkoa dela.

**M. ARTETXE.** Irakasleen prestakuntzari buruz, sei urte eman nituen Ikastolen Konfederazioan, irakasleen prestakuntza antolatzen, eta egia da metodologia anitz eta eraginkorretan oinarritutako prestakuntza oso garrantzitsua dela. Eskola inklusiboaren printzipioei jarraiki, ikaslearen garapen psiko-ebolutiboan prestakuntza sakonagoak ematea eta metodologia mailan aniztasunean hezteko klabeak eskaintzea oso inportantea da. Aldiz, irakasleok normalean hautatzen dugu gure espezialitate didaktikoan gehiago jakiteko balioko digun

ikastarora, eta uniformizatzeko horretara jotzen dugu, ondoren eredu hori bera ikasleei aplikatuz. Homogeneizatzeko horren anekdota gisa, gure ikastetxean, Orereta Ikastolan oraintxe eskola partikularren inguruko eztabaida daukagu zintzilik. Gurasoak keXu dira eskola partikular gehiegi hartzen dutelako seme-alabek eta arrazoia ematen diet nik. Listoia denentzako bat eta bera jarri dugunez, heltzen ez denak ez daki nora jo behar duen, eta bitartean denbora galtzen dugu geletan. Izango litzateke eguneroko eskolako menu ederra jan ez dugunez arratsaldean kroketa gainberotuak hartzea, eta garesti ordainduta. Uniformizatzeko horretatik atera eta bakoitzari bere interesetatik abiatuz behar duen eskola mota eskaini behar diogu. Bestalde, Itziarrek barne prestakuntzaz hitz egin duelarik, azken joeren berri izateko Kursoalera joatea gaizki



**“Berez ikasleak interes eta jakin-min handia du, oso handia, baina agian ez guk eman nahi ditugun gaietan, agian beste nonbaitetik jo behar dugu”, dio Itziar Pagoagak.**

ez baderitzot ere, egia da benetako prestakuntza azken batean urraspide kognitibo bat dela: egiten duzun hori, dakizun hori ondo aztertzea eta hobetu beharrekoak non dituzun ikustea. Irakasleak, edozein gai taldean aztertzen dutenean, berehala jabetzen dira hasteko uste zuten baino gehiago dakitela, eta kontzientzia hartzen dute egiten dutenaz, eta egiten ez dutenaz. Ondoren etorriko litzateke artikuluetara, aditueta, beste eskola batzuetara... jotzea, ereduak hartzeko. Azken pausoa eraikitzailea litzateke: zer egin nahi dugu? Nola ekarri ikasitako ereduak gurera, proiektu propioa sortzeko? Hortik irten den zernahi, jendeak eztabaidatu, adostu eta bizi egin duenez, aurrera aterako da, ez da apalean geratuko.

**B. ZUZA.** Gurasoen aldetik, gehituko nuke garrantzitsua dela ikustea gurasoek zertan lagundu dezakegun. Eskolan konfiantza izan behar du gurasoak, funtsezkoa da, eta konpromisoa eta ardura izan behar du seme-alabaren heziketan. Gainera, irakasleen ikuspegiarekiko beste sentimendu eta balore batzuk ikusten dizkio gurasoak seme-alabari eta ikaslearen argakia osatzen lagundu dezake. Bukatzeko, gure lana ere bada seme-alabak defendatzea, nahiz eta esatea gaizki geratzen den.

**M. ARTETXE.** Bai, baina ikaslea pertsona bezala primerakoa izan arren, administrazioak diosku: “Zuek haur denak pasako zenituzkete, baina selekzio bat egin behar da”, eta horregatik, selek-

zio prozesu hori egin behar dugulako, dago hain desbirtuatua ebaluazioa, ebaluazio akademikoa egin behar dugulako. Gizarteak exijitzen digun selekzio prozesu hori egin beharko ez bagenu, balorazio pedagogikoa planteatuko genuke: Nor da hau? Nolakoa da? Non dago? Zer daki? Zein ibilbide egin du aurten?... Izan ere, agian ez du bikain egin, baina topea eman du, eta beste batek, emaitza hobekak lortu arren, eman zezakeena baino gutxiago eman du, eta bizitzako zailtasunen aurrean, ez du lehenengoak bezainbeste jakingo egoerari indar guztiekin aurre egiten. Baina horri, arpa jotzen baleko emaitzak ateratzen dituenari, ez diogu ezer esaten.

**I. PAGOAGA.** Ez baitu behar gehiago egitea, mar-txa normalean gaintitu eta txukun egiten duenak zertarako denbora gehiago galdu? Inteligentea da, hobe du denbora esaterako besteei laguntzen ematea. Ebaluazio garaian, nerabea buru-belarri ari da eskatzen “nola ikusten nauzu?”, eta erantzun behar diogu ondratu eta ondo, nola ikusten dugun, alderdi positibo guztiez gain dituen zailtasunak ere adieraziz. Bat gara, osotasunean, eta ezin da alde akademikoa bakarrik ebaluatu. Ebaluazio pedagogikoa egitearekin soilik ere ez dator bat.

**M. ARTETXE.** Dena den, porrotaren sentsazioan bizi arazten ditugun ikasleei, ebaluazio pedagogikoak behintzat laguntzen diote ikuspegi berri bat jasotzen: zure notek diote kalamitatea zarela, baina ez zara, saiatua eta pertsona baliotsua zara. Horren balioaz jabetu araztea garrantzitsua da.

**B. ZUZA.** Baina ebaluazio horretarako azterketak beharrezkoak dira?

**I. PAGOAGA.** Ez, Lehenengo Hezkuntzan ez behintzat. Adinean aurrera doazen heinean, halako probak ez zaizkit gaizki iruditzen, akademikoki ere neurtzeko, baina gutxi batzuekin nahikoa da, ez da behar gaur egun bezala etengabe azterketak egiten jardutea.

“**E** baluazio garaian, nerabea buru-belarri ari da eskatzen ‘nola ikusten nauzu?’, eta erantzun behar diogu ondratu eta ondo, alderdi positibo guztiez gain dituen zailtasunak ere adieraziz. Bat gara, osotasunean, eta ezin da alde akademikoa bakarrik ebaluatu”

### I. PAGOAGA

**B. ZUZA.** Azterketek porrotarekin zerikusia dute, nolabait. Ez dut esaten ikasleek ez diotenik aurre egin behar dakitenari orri txuri baten bidez, baina ez horri nota jarritz edo azterketa deituz, askori notarekin borroka suposatzen dio, “ez dut inoiz gaintutuko” pentsatzeak porrotera eramanez... Irakasleek erabiltzen duten tresna iruditzen zait azterketa, eurak lasaitzeko, eta gainera, ikasgai bat %80ak ez badu gaintitu, arazoa ez dago soilik ikasleengan, irakasleak ere izango du zerikusirik, hausnartu beharko du porrot horretaz... Azterketarik gabeko ebaluazioa behar luke.

**M. ARTETXE.** Ez dakit sistemak horretarako ematen ditugun eta emango ditugun inoiz.

**B. ZUZA.** Eskola bakoitzak bilatu behar ditu baliabideak. Administrazioak ez du nahikoa ematen, egia da, baina baliabide berdinekin eskola oso desberdinak daude, gauza berriak, proiektu propioak garatzeko gai direla erakutsi duten asko. Bakoitzaren gogoia hor dago. ■

.....  
[www.argia.com/multimedia](http://www.argia.com/multimedia)  
 helbidean, mahai-inguruaren diaporama.

# Seaskaren metodologia

"Aholkulariak ez dauzka erantzun guztiak, baina irakasleak -pedagogoa dena- eta aholkulariak -psikologoa gehiago- elkarlanean estrategia aberasgarriagoak egiten dituzte; hori da xedea"



Jean Mixel Etxegarai \*

**S**easkan, aspalditik datorren filosofia da saiatzea kontuan hartzen ikasle bakoitza beti pertsona bat dela, kasu berezi bat, eta beraz ikas-prozesuetan denak ere ezberdinak direla, erran nahi baitut ikasteko erritmoan, metodoetan...

Hasieratik, talde profesional bat izan da Seaskan, aholkulari talde bat; garai batez irakasleak deitu egiten zieten aholkulari hauei eta ikas-prozesuan zailtasunak zituzten ikasleak ikustera joaten ziren, diagnosi moduko bat egiteko. Kasu batzuetan, arazo kognitiboak edo ikas-prozesuarekin arazoak zituztenekin, buruz buruko lana egiten zuten. Psikopedagogo profileko aholkulariak ziren.

Aldiz, duela hiru urte Seaskan sistema hori ebaluatu, gogoeta bat izan eta gure egimoldea, prozesua eta profilak aldatzea erabaki genuen. Aholkulariak ez dute jada buruz buru ikaslerik hartzen, hori irakasleen ardura da. Hots, gaur egun, eta oro har frantses hezkuntzan garatzen ari den sistemari jarraiki, ikasketa arazoei aurre egiteko lehen aktorea irakaslea bera da. Hemen ikastolak Hegoaldean baino txikiagoak dira eta irakasle taldeak txikiak izanez gero, egungo jardunbidea egokiagoa da. Horregatik, eskola porrotari aurre egiteko orain garatzen ari garen puntu bat, gure prozesuan oinarritzen dena -alegia, aktore nagusia irakaslea dela, nahiz eta ez den aktore bakarra-, irakasleen prestakuntza indartzea da.

Hartara, orain ditugun aholkulariak beste profilekoak dira: psikologoak, psikomotrizistak -peda-

gogia lana irakasleei dagokielako-. Detekzio fase prebentibo bat egiten dugu eta ondoren segipena, izaten badira ikasleak zailtasunetan. Baina gure xedea da beti ere irakasleari aholkuak ematea, ikasle horri nola irakatsi laguntzeko. Izan daiteke egimoldean, pedagogia arloan, ikaslearen helburuak zehazten...

Ikasleentzako pedagogi desberdindua eta egokitu bultzatzen da, kontuan hartuz denek ez dutela ber erritmoan ikasten, batzuek zailtasunak izan ditzaketela... Esan daiteke hein batean irakaskuntza pertsonalizatua dugula. Oso-oso pertsonalizatua ezinezkoa da, talde bat dagoelako, baina irakasleen eginkizunetan dago ber klaseak ez ematea beti, edo ber fitxak, baizik eta gauzak egokitzea eta aldatzea. Laburtuz, irakasleen lanarekin ematen da aterabidea zailtasunetan direnei, gure aholkulari taldearen laguntzarekin. Elkarlana da gakoa, estrategiak bilatzeko, saiatzeko, ebaluatzeko.

Hori guztia ikas-prozesuari dagokionez. Baina horrez gain ikasleak izan ditzake beste traba batzuk: psikologi arlokoak, familia egoerak, irakasleen arteko harremanak... Anitzak izaten dira porrotaren zergatiak. Eta hor ere, arazo psikologikoak direnez eta aholkulariak psikologian jantziak direnez, gomendioak ematen dituzte. Finean, beti ukan ditu gure proiektuak bi ardatz: gaitasun akademikoak lantzea batetik, eta bizitzarako gaitasunak garatzea bestetik, bilakaera psikologiko eta



pertsonalera lotuak. Azken ardatz hori ere irakasleen betekizunen artean dago eta honakoak landu behar ditu: autonomia, elkarbizitza, pentsatzen ikastea, eztabaidetan parte hartzen jakitea...

Ildo honi jarraituz, konturatzen garenean ikasle batek arazoak dituela harreman mailan, edo familiar... gure aholkularien lana, irakaslearekin bat, horren inguruan gurasoekin hitz egitea da, gomen-dioak egitea, etxean zer egin dezaketean, ikastolarekin batera. Izan ere, irakasle guztien lehentasuna da, eskola arazoak izaten direnean, gurasoekin baterat zerbait eraikitzea, koherenteak izatea, inplikatzeko gurasoak. Gauza batzuk ikastolan egin daitezke, eta beste batzuk etxean. Beti ez dugu erantzunik familiaren aldetik, baina prozesuan sartzen dira gurasoak, noski. Batzuetan, zailtasuna oso handia delako edota esperotako emaitzak lortu ez ditugulako iruditzen zaigu ikasleak ikerketa sakon bat beharrezkoa duela, psikologia mailan edo kognitibo mailan. Hala aholkatzen diegu gurasoei, ikerketa edo diagnosi bat egitea, ez Seaskan bertan, baizik eta kanpoko egituretan: logopedarekin, psikomotrizistarekin edo beste.

Metodologia ondorengoa da: aholkulariek, beren prozesuan, behaketak egiten dituzte gelan, ikasle eta ikasle taldearen inguruan, elkarrizketak dituzte irakaslearekin, informazioa biltzeko, beharrez gurasoekin. Aholkulari taldea astero biltzen da eta ikusitakoaren analisia egiten du. Kasua aztertu eta saiaturko da aholkuak ateratzen, informazio nahikoa ez badago beste urrats batzuk emango ditu, eta beste. Gero, horrek eramaten du segipen bat urtean zehar, edo urteetan zehar.

Badira bi urte hasi ginela metodologia honekin eta aurten, tratatzen diren kasuak banaka ebaluatzea da asmoa, kasuan kasu. Izan ere, orain arte prozesu osoaren inguruko ebaluazioak egin ditugu. Momentuz balorazio nahiko onak izan ditugu: irakasleek askotan badakiten arren zailtasunak non egon daitezkeen, aholkulariak beste begi bat izaki osatu egiten du ikaslearenganako ikuspegia. Aholkulariak ez dauzka erantzun guztiak, baina irakasleak –pedagogoa dena– eta aholkulariak –psikologoa gehiago– elkarlanean

“Integrazio Batzordea guraso talde bat da, lan handia egin duena bai Seaskan eta bai gure inguruan onarrarazteko eta garatzeko printzipio hori: ikasgela arruntetan integratu behar direla elbarritu ikasleak, elbarri kognitiboak nahiz fisikoak”

estrategia aberasgarriagoak egiten dituzte; hori da xedea.

Azkenik, eskola porrotaren adar bat aipatu nahiko nuke: momentu batean, ikasle baten porrota oso handia denean, kasu batzuetan integrazio prozesuan sartzen ditugu Seaskan. Elbarritasun bat badu, aitortua, prozesu berezia eramaten dugu, berau segitzen, baloratzen eta Hezkunde Nazionalarekin loturak egiten. Integrazio Batzordea guraso talde bat da, lan handia egin duena bai Seaskan eta bai gure inguruan onarrarazteko eta garatzeko printzipio hori: ikasgela arruntetan integratu behar direla elbarritu ikasleak, elbarri kognitiboak nahiz fisikoak.



\* Seaskako bezkuntza zuzendaria

## Eskola-gaitza

“Irakasle batzuek alaitasuna aurpegiatzen zidaten. Gaitasunik ezari lotsagabekeria gaineratzea. Artaburuari exijitu ahal zaion gutxienekoa zuhurra izatea da: idealena litzateke hilda jaio izana”



Daniel Pennac \*

**K**anpotik, bihurria izan gabe, ume bizi eta jostaria nintzen. Kanikekin eta tortolosekin abila, baloiarekin garaiezina, burkoarekin munduko txapelduna, jolastea izugarri gustatzen zitzaidan. Nahiko berritsu eta alaia, baita txantxazalea ere, gelako maila guztietan lagunak nituen, artaburuaren artean, noski, baina baita ikastunen artean ere; ez neukan aurreiritzirik. Ezer baino gehiago, irakasle batzuek alaitasun hau aurpegiatzen zidaten. Gaitasunik ezari lotsagabekeria gaineratzea. Artaburuari exijitu ahal zaion gutxieneko kortesia zuhurra izatea da: idealena litzateke hilda jaio izana (...) Jolasak salbatzen ninduen nire lotsa bakartian berriz erortzen nintzenean hartzen ninduten nahigabeaz. Ene Jainkoa, artaburuaren bakartasuna bere lotsan, *egin behar dena inoiz ez egiteagatik*. Eta ihes egiteko gogo haiek... Oso goiz sentitu nuen ihes egiteko nahia. Baina, norantz? Nahasmena. Niregandik ihes egin, nolabait, eta hala ere ni neu izaten jarraitu. Baina besteentzat onargarria izango zen ni bat (...)

Etorkizunik gabe.

*Ezertara iritsiko ez diren haurrak.*

Haur desesperagarriak.

Eskola, ondoren bigarren hezkuntza, batxilergoa, nik ere guztiz sinetsia nuen etorkizunik gabeko existentzia izango nuela.

Are gehiago, esango nuke ikasle txar batek buruan sartzen duen lehenengo gauza hori dela (...)

Hainbeste entzuteaz, etorkizunik gabeko nire bizitza nahiko zehatz irudikatu nuen. Ez da denborak aurrera egiteari utziko zionik, ezta etorkizunik



egongo ez zela ere; baizik eta gaur naizena izaten jarraituko nuela nik. Ez pertsona bera, noski, ez denborak aurrera egin izan ez balu bezala, baizik eta urteak pilatu egin izan balira bezala nigan ezer aldatu gabe, etorkizunak orainaldiaren berdina izateko mehatxua egingo balit bezala. Zertaz egina zegoen nire oraina? Nire iragan uneen batura osatzen zuen duintasunik ezaren sentimenduaz (...)

Gure "ikasle txarrak" (etorkizunik ez dutela esaten den horiek) inoiz ez dira bakarrik joaten eskolara. Ikasgelan sartzen dena tipula bat da, geruza ugariz osatua: atsekabearen geruza, beldurrarena, ezinegonarena, gorrotoarena, haserrearena, ase gabeko asmoena, iragan lotsagarri baten gainean pilatuta geratu diren egin gabeko gauzena, kolokan dagoen orainarena, kondenatutako etorkizunarena. Ikus itzazue, hemen datoz, gorputza erdi eginik eta familia motxilan daramatela. Egia esan, klasea soilik hasi daiteke zama lurrean utzi dutenean, tipulari azala kendutakoan. Zaila da azaltzen,

"Salbatu ninduten irakasleak ez zeuden prestatuta horretarako. Ez ziren arduratu nire eskolarako gaitasun ezaren jatorriez. Ez zuten denbora galdu kausak bilatzen ezta niri erretolika botatzen ere"

baina askotan begirada bat baino ez da behar, hitz gozo bat, argia, egonkorra eta segurua den heldu baten esaldia, nahigabe horiek deuseztatzeko, espiritu horiei pisua kentzeko (...)


Salbatu ninduten irakasleak –eta irakasle bihurtu nindutenak– ez zeuden prestatuta horretarako. Ez ziren arduratu nire eskolarako gaitasun ezaren jatorriez. Ez zuten denbora galdu kausak bilatzen ezta niri erretolika botatzen ere. Arriskuan zeuden nerabeei aurre egin behar zieten helduak ziren. Buru-belarri sartu ziren. Ez zuten lortu ni harrapatzea. Berriz ere sartu ziren buru-belarri, egunez egun, gehiago eta gehiago... Eta ni handik ateratzea lortu zuten azkenean. Baita ni bezalako beste asko ere. Literalki, berriz arrantzatu gintuzten. Bizitza zor diegu.

\* Idazlearen *Chagrin d'école* liburuko pasarteen itzulpena (gaztelaniara eta katalanera itzulita dago liburua: *Mal de escuela, Mal d'escola*). Ikasle zenean sufritutako etsipen eta gabeziak eta irakasle aritu zenean bizitako esperientziak umorez kontatu ditu autoreak.



# Ikusmena eta ikaskuntza

"Ikasteko arazoak dituen ume bat daukagunean, bere ikusmen sistema konplexu osoa aztertu behar dugu eta begiratu umeak ikusmen osasun ona duen"



Juan Portela \*

**G**aur egungo gizartean gero eta garrantzi handiagoa dute ikusizko baliabideek. Eskolako jardueretan, informazioaren %90 jasotzen da ikusmenaren bidez. Eta irakurtzerakoan, esate baterako, informazioaren %100 iristen zaigu ikusmenaren bitartez. Orain dela gutxi egin diren prebalentzia ikerketen arabera, eskola-porrota gero eta handiagoa da; gure inguru honetan, gutxi gorabehera %11 dira ikaskuntza-arazoak dituztenak. Begien bidez jasotzen dugun informazioa identifikatu, ulertu eta buruan gordetzeko prozesu neurologiko konplexua da ikusmena.

Umeek ikasgelan oso maiz irakurri behar izaten dute eta, irakurtzeko, denbora askoan letrak garbi ikusteko gai izan behar dute. Horretarako, enfokatzeko ahalmen handia izan behar dute (moldaera esaten zaio gaitasun horri) eta bi begiek doi-doi eta zehatz begiratu behar diote gertuko puntu bati (konbergentzia da hori). Gainera, etengabe begiak zehaztasunez mugitu behar dituzte lerroan barrena, hitzak deskodetu behar dituzte eta esanahiaz jabetzeko gai izan behar dute. Lerroz aldatzerakoan, aurreko prozesua hasi behar dute berriz: enfokatu, konbergentzia egin, lerroari jarraitu, testutik ateratzen duten informazioa deskodetu, eta informazioaren esanahiaz jabetu.

Ikusmena prozesu dinamikoa da, ez da ikuste edo ez ikuste hutsa, konplexuagoa den zerbait baizik. Hori ulertuz gero, irakurtzen eta idazten ikasteko arazoarekin zerikusia duten zantzu eta sintomak antzeman ditzakegu, hauexek besteak beste:

- Irakurtzerakoan edo idazterakoan burua mugitzea.
- Gertuko lanetan begi bat ixtea edo estaltzea.
- Liburura edo koadernora asko gerturatzea.
- Ez galtzeko, atzamarra erabiltzea.
- Irakurtzerakoan lerroak jatea.
- Irakurtzen denbora bat egiterakoan nekea sentitzea.

- Testuak kopiatzerakoan ortografia akatsak eta bestelako akatsak egitea. Zenbaitetan, gainera, akats gehiago egiten da diktaketetan baino.

Horregatik, ikasteko arazoak dituen ume bat daukagunean, bere ikusmen sistema konplexu osoa aztertu behar dugu eta honakoak begiratu: umeak ikusmen osasun ona duen, graduazio akatsak ote dauzkan, gertutik zehatz enfokatzeko eta konbergentzia egiteko gai den, begiak behar bezala mugitzen dituen eta ikusizko pertzepzio gaitasun zehatz batzuk (ikus-oroimena adibidez) behar bezala garatuta dituen.

Ikusmen arazoak izanik ikasteko arazoak dauzkaten ume gehienek, ikusmen arazoez gain bestelako zailtasunak ere izaten dituzte. Esate baterako, dislexia daukaten umeek sinbolo grafikoak deskodetzeko arazoak izaten dituzte eta, hortaz, tratamenduaren erantzukizuna ez du inoiz ikusmen-neurtzaile batek hartu behar. Aldiz, umeak arazo larriak baditu lerroari jarraitzeko –irakurtzerakoan erabiltzen dituen begi mugimenduak ez daudelako garatuta–, gure ekarpen terapeutikoa funtsezkoa da umeak irakurtzeko eta idazteko gaitasuna garatu dezan.

Aldiberekotasunaren printzipioa defendatzen dugu eta, printzipio horren arabera, ikasteko zailtasunaren arazoak anitzak dira. Eredu honetan arazoaren faktore garrantzitsua da ikusmena eta, hori dela eta, zenbait kasutan ikusmen-terapia izaten da irtenbide bakarra.

*\*Haur optometrian espezialista.*

## LARRUN pentsamendu aldizkaria

**ARGI**Arekin batera banatzen da

**Koordinatzailea:** Xabier Letona

**Jabea:** Komunikazio Biziagoa S.A.L.

**Helbidea:** Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160

Lasarte-Oria **Posta Elektronikoa:**

larrun@argia.com **Telefonoa:** 943 37 15 45

**Inprimategia:** Antza S.A.L. **Informatika:** ASP SCOOP.

(ARGIAko 2.199. zenbakiarekin banatua, 2009ko irailaren 27an)